

# Langai

1990 ko ABUZTUA

LANGILE ABERTZALEEN BAI ZORDEAK

ZENB. 8

## Batasun Nazionala Erabakiak

## Lan-Organo Istituzionalak




Zbkia

TXT10011

DOKUMENTAZIO  
ZENTROA

# GAIAK

SARRERA .....	3
1.- GAUR EGUNEKO LAN ERAKUNDEEN SAREA. ....	4
2.- ORDEZKARITZA SINDIKALEKO ORGANU PUBLIKOAK. ....	4
2.1.- Sailkapena. ....	4
2.1.1. Eskumenen arabera: orokorrak eta sektorialak. ....	4
2.1.2. Funtzioen arabera: Negoziazio kolektiboarekin erlazionatutakoak eta ez. ....	5
2.2.- Beren eraketan sartzen gaituzten organoak. ....	5
2.3.- Sartzerik ez dugun organoak. ....	5
3.- BERE BAITAN SARTZEN GAITUZTENEN EZAUGARRI GARRANTZIZKOENAK. .	6
3.1.- Lan Harremanetarako Kontseilua. ....	6
3.2.- Kontseilu Ekonomiko Soziala. ....	7
3.3.- Funtzio Publikorako Euskal Kontseilua. ....	7
3.4.- Euskal Kontseilu Eskolarra. ....	7
3.5.- Laneko Segurtasun eta Higienarako Euskal Istitutuaren Kontseilu Nagusia. .	7
4.- ERAKUNDE HAUEK EGUN DUTEN ZEREGIN POLITIKOA. ....	8
5.- PARTIZIPAZIOA ORDEZKARITZA SINDIKALA DUTEN ORGANOETAN. ....	8
5.1.- Gure interbentzio-jokabidea eta organoak. ....	8
5.2.- «Legitimatze»ari buruz. ....	9
5.3.- Gizarte-borrokaren markoak. ....	10
5.4.- Gure prozesuaren markoan eginbeharrekoa. ....	11
6.- GURE ANTOLATZE-AHALMENA ETA ORGANO HAUEK. ....	11
7.- ONDORIOAK. ....	12



## SARRERA

Orain arte, gure lehentasunezko aditasuna eskatu duten gaietan ibiliak gara. Dena den, gai honek ere garrantzia dauka gure erakundearentzat. Alde batetik antolaketa mailako gaindikotasunarekin aurkitzen gara (zuzendu behartako dedikazioa, azpiegitura...), bestetik, eta batez ere, gure ekintza sindikalaren testuinguru orokorrean esparru hoietan parte hartzeari eman behar diogun lekuarengateik.

Iadanik daukagun ordezkariak, eta datozen hauteskunde sindikaletako ondorioek, zenbait ordezkariak sindikaleko organo eta erakunde publikoetan egoteko ahalmena emango digute, gutxienez vascongadetan.

Azpitarratzekoa da organo edo erakunde hoietan sindikatuen partehartzea ala ez egun arautzen duen legediak, bakarrik ordezkariatasun gehien duten sindikatuei ematen diela eskubide hori: izaera estatala dutenei (Betebeharra: estatuko barrutian %10a), eta, beraien estatutoen arabera komunitate autonomiko bat baino gehiagorekin batera etortzen diren sindikatuei (betebeharra: %15 a edo 1.500 ordezkari edukitzea komunitatearen barrutian). LABek ez ditu betetzen betebehar guztiak (batez ere gure estatutoetan —ELA bezala— komunitate bat baino gehiagotan partehartzen du-

gula agertzen delako, honek «sindikatu estatal»ean bihurtzen gaitu); beraz «legalki» ez daukagu «eskubiderik»; eskubidea izanen dugu egun Hegoaldeko indar politiko hegemonikoek (PNV-PSOE-UPN) «nahi duten» bitartean. Egundun gintezke zenbait organo edo erakundeetan baina honek, batez ere gure azterketa politikoa, eta gure jarrera zehaztea eskatzen ditu.

Balora dezagun ba gure erakundearentzat berria den alor honek lekuri daukan ala ez eta zerikusi edukiko duen gure egungo interbentzio sindikalarekin. Eta guzti hau kokatu behar dugu aurrera daramagun iraultza prozesuan, eta zehazki KAS alternatiba lortzearen, taktikoki Negoziazio Politikoaren finkapenaren esparruan.

Eztabaidan, lan instituzio eta instituzio politikoaren (parlamentu, udaletxeak,...) konparaketa linealatik aldendu beharko dugu, jarrera «antistituzionalistak» eta «instituzionalistak» bazterrean utziaz. Partizipazioari dagokionez, hauteskunde politikoak direla ta, hainbat aldiz luze eta zabal eztabaidatu ditugun kuestioak, aurre egin behar diogun gaian, lagungarri suertatu behar zaizkigu. Baina hau hola izanik, ezin gintezke azterketak eta jarrerak mekanikoki trasladatzeko «arriskuan» erori.

## 1.- GAUR EGUNEKO LAN ERAKUNDEEN SAREA

Organo judizialak eta zenbait administrazio organo (gizarte-epaitegiak edo lan ikuskaritzak) alde batera utzita hauetan eskuhartze sindikalik ez bait da, egun dugu erakunde-sarea honela bana dezakegu:

- A) **Enpresa komiteak, Langilegoaren Batzordeak eta Langilegoaren Ordezkariek.** Lan legeriak hauen interbentzio-ahalmena lantoki, enpresa edo zerbitzu publiko zehatzaren eremura mugatzen du (Osakidetza, AHV, Luzuriaga,...)
- B) **Enpresa edo zerbitzu publikoaren eremuaz gaineko negozioazio kolektiboaren markuak,** herrialde mailakoak, autonomi elkartekoak, hegoalde mailakoak, bai estatu mailakoak (sektoreetako hitzarmenak, ARCEPAFE, Baskongadetakoko Administrazioaren Mahai Orokorra eta sektoreetako mahaiak...).
- D) **Erakunde ez-ohizkoak,** Baskongadetan, Herrilananen Jarraipenerako Batzorde famatua bezala, edo Irutzurraren Kontrako Batzordea, zenbait udalek ematen duten eskuhartzea, Aurrekontuen gaineko legeak ezarritako Kontrol eta Jarraipenerako Batzordeak... eta antzekoak. Eskuar-ki «lan batzorde» hutsak izaten dira, hiru zatitan banatuak (Administrazioa, sindikatuak eta patronala).
- E) Administrazio publikoak araudi berezien bitartez sortutako organo publikoak, **arautze espezifikoa dutenak, zeinetan sindikatuek zer esanik baduten** (CRL, Osasunerako Euskal Batzordea, Euskal Autonomi Elkarteko Eskola Kontseilua... eta Nafarroan antzekoak direnak). Guretzat amankomuna dutena zera da, bertan erakunde sindikal bakoitzaren ordezkaritasunaren arabera eta organo eta

erakunde bakoitzak berezko arautzean ezarritako portzentaiaz parte hartzen dela. Atal honetako organo eta erakunde guztiak «ordezkaritza sindikal duten organo publikoak» deituko ditugu hobeki ulertzeko.

Gaurdaino «A» eta «B» ataletako organoetan hartu dugu parte, aktiboki, eskututako ordezkatze-baldintzak lortzen argi garen heinean.

«D» atalean aipatutako organo edo batzordeetan ez dugu inoiz sarbiderik izan (askotan espreski sortzen dituzte gu egon ez gaitzen).

Eztabaidetan «E» atalean daudenetara mugatuko gara. Hauetako zenbaitetan sarbiderik badugu ere ez dugu parte hartzen, joaten garen arren (ez dugu botazioetan parte hartzen, erakundearen jarrerarik ez dugu planteatzen).

## 2.- ORDEZKARITZA SINDIKALEKO ORGANOK

### 2.1. DAUDEN EDO SORTZEKO DIRENEN SAILKAPENA.

#### 2.1.1.- Eskumenen arabera:

**A - Orokorrak:** CES (Baskongadetan eta Nafarroan) eta CRL (Baskongadetan). Hauen eskumenak lan harremanekin zerikusirik duten gai eta alde guzti-eta hedatzen dira. Administrazio publiko-ko zerbitzuko lan erentzarik ez duen langilegoari dagokionez muga haundiak dituzte (funtzionarioak, kontratazio administrazioa,...)

**B - Sektoreetakoak:** Euskal Kontseilu Eskolarra, Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua, Laneko Segurtasun eta Higienarako Istitutua,... Eskumenak beren areei dagozkie (irakaskuntza, osasun arloa,...).

### 2.1.2.- Funtzioen arabera:

**A - Negoziazio Kolektiboarekin erlazio-natutakoak:** Negoziazio Kolektiboan eragina duten gai eta aldeak ukitzen diren organoak (CRL, Funtzio Publikorako Euskal Kontseilua...).

**B - Negoziazio Kolektiboarekin erlazio-naturik ez daudenak:** bertan orientabide orokorra, planifikatzeari buruzko gaiak ukitzen diren, iharduketa espezifikoa areako administrazioaren politikari buruzkoak (Eskola-kontseilua, Euskal Estadistika Kontseilua,...).

## 2.2.- BEREN ERAKETAN SARTZEN GAITUZTEN ORGANOAK:

%10eko ordezkartzasun orokorra izatea baldintzatuz ezartzen dutenak (CRLren kasua) edo lortu dugun ordezkartzasun espezifikorik ezartzen dutenak (adibidez, eremu funtzional zehatz batean portzentaia bat, Funtzio Publikorako Euskal Kontseiluaren kasuan bezala).

Baskongadetako gobernuak, zenbait kasutan, baskongadetako barrutian ordezkartza orokorraren %10a eskatzen du, beste batzutan (PSOE-ek gestionatutako sailtan eskuarki) estatuko barrutian ordezkartza orokorraren %10a edo ordezkartza orokorraren %15a gehi baskongadetako barrutian 1.500 ordezkari izatea ere eskatzen duelarik (azken hau bakarrik baskongadetako barrutian ezarrita dauden sindikatuei dago kienez).

Nafarroako gobernuak beti ere aipatutako bigarren erizpidea ezartzen du, eskuhar-tzea ezta ELA-ri ere ematen ez diolarik.

Estatu-izaera duten organoei doakienez (INEM, FOGASA,...) ez ELA («sindikatu estatala» komunitate batean baino gehiagotan izateagatik eta, beraz, estatuko barrutian ordezkartza orokorraren %10a ez

izateagatik) ez gu («sindikatu estatala», ELA bezala, estatu mailan %10a eta baskongadetan %15a ez dugularik) ezin izanen ginateke egon. ELA-ekin «jentiltasuna» izaten dute eta, PSOE-PNVren arteko hitzarmen politikoak direla medio, baskongadetan estatu-izaerako organoetan partehartzen uzten diote baina Nafarroan hitzarmenik ez dagoenez (han PSOE-UPNren artekoa), beraz, han baztertzen dute.

Une honetan —egun dugun ordezkartzarekin eta indarren dagoen araudiari jarraiki— sartzen ahal gareneko organo eta erakunde guztiak baskongadetakoak dira:

— **Lan Harremanetarako Kontseilua:** ordezkartzasuna %10a baino handiagoa duten sindikatuetatik 7.

— **Kontseilu Ekonomiko eta Soziala:** 7 sindikatu ordezkartzasuna %10a baino handiagoa izateagatik.

— **Euskadiko Eskola-Kontseilua:** 6 irakasle, ordezkartzasun sindikalaren proportzioan, PASEko 2 ordezkari bere ordezkartzasun sindikalaren proportzioan eta sindikatuetak 3 baskongadetan duten ordezkartzasun sindikalaren arabera.

— **Laneko Segurtasuna eta Higienarako Istitutuaren Kontseilu Nagusia:** Baskongadetan ordezkari, komite partaide eta langilegoaren batzorde guztien kopuruaren %10a baino gehiagoko ordezkartzasuna duten sindikatuetatik, 7.

— **Funtzio Publikorako Euskal Kontseilua:** Baskongadetako administrazio Publikoetan duten ordezkartzasunaren arabera, sindikatuetatik 12.

## 2.3.-SARTZERIK EZ DUGUN ORGANOAK.

**A - Estatukoak, Herrialdeetako Batzordeak:** LOLS izenekoa ezartzen digute (gure

kasuan %15a ez dugula), ELAren, berriz, —lehen aipatu bezala— «salbuespenak» egiten dituzten bitartean, baskongadetakoetan parte hartzen uzten diotelarik. Hauek dira, besteak beste: INSS, INEM, ISM, FOGASA.

**B - Baskongadetakoak:** politikoez benerako kilikolo juridikoak egiten dituzte gu sar-tzea galerazteko, LOLS izenekoaren ezarpena alegatuz, hots, baskongadetan %15a ez du-gulako. Noski, alde batera uzten dute for-ma aldetik «sindikatu estatala» garelara, modu honetan ELAri ematen dioten tratamendua-rekiko kontraesanetan ez erortzeko.

- Euskal estadistika kontseilua.
- Osasunerako Euskal Batzordea.
- Euskal Herriko Unibertsitateko Kontseilu Soziala.
- Euskadiko Prezioen Batzordea.
- Itsas-Ardularitza Eskolaren Aholkularitza Kontseilua.
- «Enpleguaren» Batzorde Komarkalak.
- Kontrol eta jarraipenerako Batzordeak (Enplegurako planak...).

**D - Nafarroa:** Bai LAB-eri, bai ELA-ri, LOLS izeneko aplikatzen diete (estatu mailan %10a eskuratzen ez duten sindikatu esta-talak), «hitzarmen konstituzionala» ez bait da Nafarroara ailegatzen.

- Kontseilu Ekonomiko eta Soziala.
- Ingurugiroaren Aholkularitza Kontseilua.

### **3.- BERE BAITAN SARTZEN GAITUZ-TENEN EZAUGARRI GARRAN-TZIZKOENAK.**

Material osagarri gisa eta interesaturik da-goien militantziarendako, eskualde bakoit-zean sartzen gaituzten ordezkariak sindika-leko organo publikoen araudi arauzko-

tzailearen liburuska banatu da (zioen azal-pena, eraketa eta funtzioak).

Eztabaidatzeko eraginkorrak diren ezaugarriak aipatuko ditugu, hauek, denak, baskongadetakoak direla azpimarratuz.

#### **3.1.- LAN HARREMANETARAKO KONTSEILUA:**

- Eraketa: Bi alderdi ditu: Patronala (CON-FEBASK) eta Sindikatuak (ELAk 3, UGTk 2, CCOOek 1 eta LABek 1). Administrazioa ez dago, ezta patronala den aldetik ere. Eraba-kiak alderdi bakoitzaren %60ko akordioaren bidez hartzen dira.

- Funtzio garrantzizkoenak: Negoziazio Kolektiboarekin zerikusirik duten guztiaren zuzpertzeta eta garatzea, proposamenak egi-tea eta edozein lan aferetan, gobernuaren aurretiko kontsulta.

- Finantziarioa: EHAeko Aurrekontu Oro-korretan zuzenki kontsignatutako berezkinak Baskongadetako Parlamentuak onesten di-tuenak, sailek esku sartu gabe.

- Berezko nortasun juridikoa du, baskon-gadetako administrazioetik at. (berezko lan-gilegoa, azpiegitura, dinamika...).

- Burututako zenbait ekitaldi: hitzarmenak zabaltzeko eskaerak, gatazka kolektiboetan arbitraia eta bitartekotza prozeduren sortzea, mota guztietako lan aferei buruzko analisi eta ikerketak, Baskongadetako gobernuaren lan arauen gaineko proiektuei buruzko txosten eta erizpideak, lan arazoei buruzko kongresu eta antzekoetan parte hartzea...

- Erakunde honetara joatea hutsarekin zertaz aritzen diren ezagutzera mugatu gara. Honek, besterik ez bada ere, UGT eta CON-FEBASK molestatzen dituela ohartu gara. Estadistika eta analisi-informazioko sarbidea (bertzalde deustako erabili ez duguna). Izan dira zenbait gai zeinetan, zerbait esateko irri-

kitan egon arren, deus ere esan ez bait dugu. Dena den, hemendik aitzina (UGT-CCOO-ELAren arteko negoziazio kolektiboari buruzko akordioak, arartekotasun eta arbitraiarako borondatezko prozedura, hauteskunde sindikalak,... neurri haundi batean LHKaren bidez gauzatuko direnak) erakunde honen nolabaiteko «gazia» hartuko du, orain arte somatzen ez zena.

### **3.2.- KONTSEILU EKONOMIKO-SOZIALA.**

- Eraketa: Denetarik (sindikatuak, patronala, adituak, merkatal ganbara, kutzak kooperatibak, kontsumitzaileak,...).

- Interes ekonomiko eta sozial desberdinek politika ekonomikoan parte har dezaten eusko jaurlaritza eta parlamentuaren erakunde aholkulari gisa eratua: legeria ekonomioan manamenduzko eta aurretiko txostenak (baskongadetako aurrekontu orokorretan salbu), proposamenen formulatzea, arlo publikoaren iharduera ekonomikoaren plangintzan parte hartzea...

- Finantziazioa: LHK bezala.

- Burututako iharduketa: Geldirik dago bere eraketaren gainean dagoen ezadostasun sakona dela kausa (patronalak ordezkari bikoitza...).

### **3.3.- FUNTZIO PUBLIKORAKO EUSKAL KONTSEILUA.**

- Eraketa: Administrazio autonomoaren 6 ordezkari, diputazioen 3, udaletako 3 eta sindikatueta 12, baskongadetako administrazio publikoaren langilegoaren arteko ezarztearen arabera (ELA 6, CCOO 3, LAB 2, UGT 1).

- Funtzioak: Baskongadetako administrazio publiko berberen langilegoarendako politika osatu beharko duten neurrien koordina-

tze, aholku eta proposamenetareko organo gisa eratu da. Negoziazio Kolektiboa, ordea, ez da organo honetan burutzen (ezta Langilegoaren Batzordeetan ere), sindikatuen bidez baizik, bai Sektore —Mahaietan-Osakidetza, Irakaskuntza...—, bai Negoziazio Kolektiborako Mahai Nagusian (baskongadetako administrazioaren mende dagoen langile guztientzat).

### **3.4.- EUSKAL KONTSEILU ESKOLARRA.**

- Eraketa: Denetarik (irakasleak, ikasleen gurasoak, ikasleak, PAS langileak, patronal pribatua, ikastolak, EHU...). Hauxe da sindikatuen ordezkariak: 6 irakasle, irakaslegoaren arteko ordezkariaren arabera (ELA 2, UGT 1, CCOO 1, LAB 1, —ELAK helegina— eta STEE 1), PASeko 2 ordezkari, langilego honen arteko ordezkariari jarraiki (ELA 1 eta CCOO 1) eta sindikatueta 3, baskongadetako duten ordezkariak osoa kontutan harturik (UGT 1, ELA 1, eta CCOO 1).

- Funtzioak: Manamenduzko kontsulta eta berezko proposamena ondoko gaietan: programazio orkorra, araubidezko proiektuak, eskola-tokiei buruzko oinarriko erizpideak, hizkuntz helburuak, langilegoaren arloko funtsezko erizpideak,...

- Halaber, izan badira Herrialdeetako Kontseilu Eskolarrak (ordezkariak, herrialde bakoitzeko ordezkariari jarraiki) eta Udaletako Kontseilu Eskolarrak (ordezkariak udalek finkatzen dituzte).

### **3.5.- LANEKO SEGURTASUNA ETA HIGIENERAKO EUSKAL ISTITUTUAREN KONTSEILU NAGUSIA. (izapidetan)**

- Eraketa: 7 sindikal (%10a), 7 patronalaren eta 7 administrazio publikoaren al-

detik. Eratu gabea oraindik.

- Funtzioak: aholkularitza eta kontrola (heziketaren programazioa, iharduerak eta hauen kontrola, proposamenak, eskaerak, beste erakundeekiko elkarkidetza-akordioak). Gaur eguneko Segurtasun eta Higienarako Kabineteak bere gain hartuko ditu.

- Honekin batera herrialde bakoitzean Herrialdeetako Laneko Segurtasun eta Higienarako Batzordeak ere izanen dira, ordezkari-tza Kontseilukoaren antzekoa izanen delarik.

#### **4.- ERAKUNDE HAUEK EGUN DUTEN ZEREGIN POLITIKOA**

- Integratzaile eta desideologizatzaileak: Kapitalak munduko bigarren gerraren ondoren hartutako estrategiaren mende daude, hots, estatua «kopartizipazio»ra idekitzea, bertan alderdi politikoekin batera proiektu sozio-politiko alternatiboak egin eta finkatzeko gai diren agente sozialak ere izanik (elkarte sindikalak, kontsumitzaile, profesionalen elkarteak,...)

- Gatazken berbideratzea: Hitzarmen sozial eta politikoz estrategia iraunkor gisa sustatzera zuzenduta daude, sistemaren barneko bide edo ildo bihurtu bait dira, bertan alderdi politikoei beraiek ordezkatu eta zehaztu nahi ez dituzten ekimenak, eskakizun alternatiboak... planteatuko direlarik.

- Eragin politikorik eza: organo aholkulariak dira, inoiz ez loturazko izaerarik ez dutenak. Beren iharduketan ondorio praktikoak (hala positiboak nola negatiboak) eskasak izaten dira, batez ere erakunde politiko eta autonomi instituzioetan (parlamentuak eta gobernuak) errealitate sozioekonomikoan eragiteko ahalmen eta eskumen praktikoa izanen bait litzateke, salbu negoziazio kolektiboaren eragina dutenen kasuan (Baskongadetako Lan Harremanetarako Kontseilua

eta Funtzio Publikorako Euskal Kontseilua, bereziki).

- Sektore-politika publikoari buruzko akordio eta hitzarmenen eszenatoki izaera doaz, bai lan-motakoak (LHK izenekoan negoziazio kolektiboak), bai administrazio-kontrol eta segiziokoak (segizio-batzordeak, intzur, heziketa, enplegu batzordeak...). Administrazioaren politika beraren eszenatoki finkatzaile eta legitimatzaileak dira (pentsa dezagun Lurralde proiektuaren gaia ingurugiroko ustezko organo batetan ukitua, edo euskal nazio eskola publikoari buruzko gaia Kontseilu Eskolarrean ukitua).

- Baskongadetako eta Nafarroako instituzioek beraiek gizarte-lan eremuan duten eskumenik ezak baldintzatutako organoak dira: eskumen-markoa alda zezakeen proposamen edo neurririk ez da aitzina ateratzen ahal dagozkion organo erabakitzaile eta exekutiboetan (gobernuak eta parlamentuak) «ezkonstituzionala» dela kausa.

- Haietan oro har gizartearendako, eta batzutan zenbait talderendako ohizko interesa duten gaiak planteatzen dira, erabakitzeko azken markoa edo erabateko markoa ez badira ere.

#### **5.- PARTIZIPAZIOA ORDEZKARITZA SINDIKALA DUTEN ORGANOETAN.**

##### **5.1. GURE INTERBENTZIO - JOKABIDEA ETA ORGANOAK**

Gure jokabide sindikalaren oinarritzko ardatza, gaur egun, aurre egitearena da, honekin gastatze politikoa bilatuz eta LABek, euskal langileriaren baitan, aitzindatzen duen ENAMaren proiektuaren inguruan indar metatzea sustatzen dugularik.

Aurre egite honek, errealitatearen arabe-

ra, Kointura Abagadunetan aztertzen dugun egoera desberdinen arabera, Euskal Langileen Mugimenduaren egoera, gizartegatazkaren bilakatzearen arabera... eduki eta luzezabal desberdinak izaten ditu. Honela, ba da, koiuntura zehatz eta espezifiko bategen aurre egiteko jarrerak bertze koiuntura desberdinetan baliotasunik izan dezakete ala ez.

- Egun osagai desberdinak edo, lehenago ez ziren elementuak biltzen dira: gizartegatazka burutzen den parametroen aldaketa (1987an Euskalduna erori zenez geroztik, hura izan bait zen enplegu-suntsiketa gogor eta orokorraren etaparen inflesio-puntua) organo hauetan sartzeko posibilitate bera (1986 baino lehenago guretzat ez zen honelako posibilitaterik).

Begi bista da gure interbentzioa organo hauetan bigarren mailakoa dela. Gure interbentzio lan nagusia lantokietan, negoziazio kolektiboaren markoetan, gatazketan dago eta organo hauetako interbentzioak ez du definitzen, ezta deus eransten ere gure nor-tasun sindikal espezifikoari dagokionez. Informazio haundiagoa, salaketa publikorako posibilitateak, eskuarki argitara ateratzen ez diren gaiak atera eta eztabaidatzea... eztabaida orduan kontutan hartzeko elementuak dira. Gure interbentzioari laguntza ematen diote, batez ere alde orokorretan, baina ez dute ordezkatzen.

Hortaz, azken finean baloratu behar duguna da gastatze politiko, aurre egiteko alor eta eszenatoki bihurtzen ahal ditugun, hau da, gure interbentzioak gure estrategia orokor eta nagusiari bide ematen dion hala aurre egite estrategia honek erakunde hauen kontrako gatazkan, bertan parte hartu gabe, indarrak hartzen duen.

## 5.2. «LEGITIMATZE»ARI BURUZ.

Erabaki behar dugun beste gaia hau da: organo publiko hauetan parte hartzea gaur eguneko markoan faktore legitimatzaile gisa izanen litzatekeen, haren aldatze-prozesua negatiboki eraginez.

Ordezkaritza sindikala duten organo publiko eta instituzio politikoaren artean (gobernuak, parlamentuak,...) bada desberdintasun garrantzizkorrik. Azken hauek behin betiko erabakien foroa dira eta haiek ez, instituzio politikoaren erabakiek ordezkaritza sindikaleko organoak lotzen dituzte baina ez alderantziz...

Organo hauek, gaur eguneko marko juridikoari dagokionez, «neutralak» dira, hau da, beren ahalmena haunditu ala murriztu egiten da marko beraren arabera: marko juridikoa da hauen edukina bete edo hustutzen duena eta ez bertan egiten den egintza. Honela, gaur eguneko markoaren aldaketak ez ditu aunitz organo hauen eginbehar eta eskumenak aldatuko, funtsezko lan eskumenak (egun estatuarenak direnak: legislatiboak, ...) etorkizuneko euskal erakunde politikoetan (parlamentua, gobernuak) izanen bait dira.

Gure partizipazioak «legitimatzen» duen gauza bakarra organoak, beraiek, dira baina gaur eguneko marko juridikoa berez legitimatzea nola hartzen dugun parte eta bertan zer planteatzen dugun ekarriko dute. Egun enpresa komiteetan, langilegoaren batzordeetan, negoziazio kolektiboaren mahaietan... egiten dugun partizipazioaren antzera.

Erreformismo sindikalak, ELAk batez ere, finkatu eta edukia ematen dien heinean marko juridiko-politikoaren euskarri bihurtuko ditu, garatze-gaitasuna agortu duten erakundeen mugak ezkatuz eta estaliz.

Partizipazioa ala ez-partizipazioa horrekin prozesu bera ere bultzatzen dugun ala ez, indar-metatzearen arabera, gastatzearen arabera izanen da, ez, ordez purismo teori-koen oinarrituz.

### **5.3. GIZARTE-BORROKAREN MARKOAK.**

Ordezkaritza sindikaleko organo publikoak dira —gero eta modu nabariagoz, mugarik badute ere— gizarte-borroka-aren eszenato-ki eta marko eta haietan euskal langileria-  
rengan eragin garbia duten estrategiak klase-  
interesak eta interbentzio sindikalak zehaz-  
ten dira; haietan bizitza eta lan baldin-  
tzetako garrantzizko aldeei buruzko informa-  
zioa erabiltzen da (negoiazio kolektiboa,  
gizarte-babesa, hezkuntza, sanitatea...) eta  
nolabaiteko protagonismo politiko-publikoa  
hartzen ari dira, areago, euskal langileria-  
rengan itxaropenik sortzen ari dira.

Gizarte-borrokarako eremu hau erreformismoari uzteak honen mezu haribakarre-  
koari, mezu uniforme eta desideologizatza-  
ileari esparrua zabaltzea eta mezua indartzea  
ekarriko luke; eremu hau uzteak organo  
hauei beraiei birtualtasun eta orozgaitasun  
haundiagoa ematen dizkie. Gure presentziak  
erreformismo sindikala baldintza dezake,  
bere mezua aldaerazten du, argudioak bor-  
txatu eta gorapilatzerara behartzen du... erre-  
formismo sindikalaren beraren katalizadore  
gara, euskal langileriarengan eragina duena.

**A - ELA:** ELAk organo hauen sustatzea  
nahi du baskongadetan (eta, ahalko balu,  
Nafarroan) erreformismo sindikalaren pro-  
tagonismoa eta nagusitasuna, egun, es-  
tatu mailan ezarritako dinamikaren ondo-  
rioz (kontzertazio soziala...) UGT eta  
CCOO aintzindari dituztenak, izateko.

Honela ELAk markoaren ezgaitasuna  
gorde eta izkutatzen du, ordezkaritza sin-

dikaleko organo eta erakunde sarea egi-  
nez, bertan benetan ezinbestekoa dugun  
lanharremanetarako marko autonomoaren  
irudikeria faltsua ematen duelarik.

Ildo honetan, Euskal Langilerian, lehia-  
kide estrategiko garrantzitsuena, metatze-  
prozesuari begira, ELA dugu, erakunde  
gisa, sindikatu gisa, eta bere jarrera  
politiko-publikoak ENAMaren jarreretarako  
erabili behar ditugu, bere eremuetan le-  
hiatu, ENAM bulka dezaketen alde bakar  
batetan ere ezin diogu aintzindari izaten  
utzi... ezaugarri duen anbiguetate hori  
haustera behartzeko, lan-harremanetarako  
benetako markoaren suzedaneok diren  
organoa hauetan ager-agerian uzteko eta  
euskal langilerian duen eragina murriztea  
lortzeko.

**B - UGT eta CCOO:** Haien artean des-  
berdintasunik dauden arren, ez batak ez  
besteak ez dute inolako interes estrateji-  
korik organo mota hau bultzatzeko beren  
«motorra» estatu —izaera baita— eta are  
gutxiago Euskal Herrian, non beren bar-  
neko ahulezia eta gizarte-sartzearen ahu-  
lezia agerian den.

Beraien eragin soziala, batipat CCOO-  
ren kasuan, seriozki ukitua suertatuko da  
gure prozesua alde bilakatzen den heinean  
eta guk, ELArekiko erreferentzigune izen  
behar dugu.

**D - MC eta LC:** Dudarik gabe, interben-  
tzio orokor mota honek, batzutan bereha-  
lako interes zehatzei erantzuten ez dien  
honek, ekintza sindikal «aparatera» hu-  
tsari bide ematen dionak, guk erreformis-  
mo sindikalaren kontra erabili ditugun zen-  
bait topiko, sektore zehatz batzuk (MC,  
LC) oraingo honetan guri jaurtikitzea eka-  
rriko du. Bestalde, ahal duten aldioro par-  
tizipazioa erabiltzen duten sektoreak, ale-  
gia (STEEren bidez, Emakunde barnean

daramaten estrategia, edozein hauteskunde-apostu baten aitzinean duten jarrera bera, istituzioetako partizipazioa...).

Indar politiko hauek eta beren militanteak ez dira eta ez dira izanen ENAMarendako ezta LABendako hazitzeko esparrua: beren proiektu eta taktika dituzte, ENAMarenekin bat egiten ez dutena. Eta Blokea aintzindari duen prozesuaren aurrerapena izanen da hauen zorroztasuna eta zangartekoak areagotzea baldintzatuko duena.

Alabaina, nagusi diren erakunde sindikal eta sozialetan (CUIS, STEE, Emakumeen Asanbladak...) badira heterogeneotasun ideologiko sakona duten pertsona eta militanteak, ENAMren kontra ez daudenak; jende horretan (eta ez MCn eta LCn) pentsatu egin behar da gure hurbiltasuna zuzentzeko orduan eta kritikak aditu eta baloratzean.

Funtsean, aztertu behar duguna hau xe da: Langileria eta Langileen Mugimenduaren egoera zehatz honek eskatzen digun interbentzio-eremu hauetara zabaltzea erreformismoaren proiektu sindikal alternatiboa finkatzeko, erakunde gisa indartzeko, ENAMrantz indarmentatzea zuzpertzeko, hots, Negoziazio Politikoa eta ENAMaren aurreratzea, gure aurreratzea ekarri behar duena beharrezkoagoa egiteko.

#### **5.4. GURE PROZESUAREN MARKOAN EGINBEHARREKOA.**

Negoziazio Politikoaren prozesuan barna, nahiz honen ondoren, ordezkariak sindikaleko organo publikorik izanen da eta erantzunkizuna dugu —premiazkoa dagoeneko— gure prozesuan barna eta eguneko marko juridiko-politikoaren aldaketaren on-

doren, lan-harremanetarako marko autonomo batean, zer izaera izanen duten definitzea.

Ondoko helburu hauei erantzuna eman beharko diete:

— Euskal Langileriaren politizatzea zuzpertztea, hala edukinei dagokienez (kritika eta autokritika sendorako gaitasuna emanen dieten funtzio eta eskumenak), nola formei dagokienean (partizipazio sindikala, kontsul-ta prozesuak klasearen baitan, ...).

— Klasearen antolatze-maila areagotzea.

— Klasearen beraren ikuspegi eta interesen arabera arazoan konpontzeari bide ematea.

Kontutan hartu beharreko bertze faktore bat da organo hauen erabaki guztiak edo batzuk lotesle izan daitezkeen espezifikoki politikoak diren erakundeendako.

#### **6.- GURE ANTOLATZE - AHALMENA ETA ORGANO HAUEK.**

Ordezkaritza Sindikaleko organo publikoetan interbentzio eraginkorra antolatze-ahalmenaren arabera izaten da: dedikazioa, prestakuntza, Sendotasun ideologikoa, estrategia garbia... Alderantzikoa da «haizeak nora, maindireak hara» eta korrenteak erakundearen beraren sarea sendotzera eramaten gaitu, hots, klasearen desideologizatzea sakontzea, gure estrategia aldatzera, ordezkariak sindikaleko organo publikoetan parte hartuko ez badugu ere.

1.988ko udaz geroztik ematen ari garen urratsek ahalmen haundiagoko prozesuan kokatu gaituzte, oraindik neurtu ez duguna, gure interbentzio alor espezifikoaren alorrak, euskal langilerian, eskatzen duen luzezabal eta sakontasun osoan garatu ez duguna.

Alde honetatik gehien baldintzatzen gai-

tuzten bi alde hauek azpimarratuko ditugu: Analisi, prestakuntza, aztertze lan haundia-  
goa egiterakoan Ekintza Erreibindikati-  
bora-ko aparatoa eraginkor egiteko oztopoak,  
gure interbentzioaren errendimendu politiko-  
sindikala haundiagoa lortzeko, eta Idazkari-  
tza Teknikoa finkatzeko oztopoak egiturei in-  
terbentzioa eta langileriarendako eta, oro  
har, gizartearendako diskurtsoa sendotzen  
dituzten analisiak, balorazioak, alternatibak...  
emateko.

Honek ez du esan nahi gainerako aparatu eta egiturak iharduera egokia egiten ari garenik, zeren aitortzen bait ditugu zein akats ditugun propagandan, prentsan, heziketan, diruzaintzan... bainan, hori bai, aipatutako bi arlo horietan, biziki baldintzagarri den «gorapilo» edo «gelditzea» nabari dezakegu.

Ezin dugu ignoratu organo hauetan partehartzeak ala parte ez hartzeak ere baldintzatzen duela eta gure antolatze-ahalmenarekin eta, bereziki, Ekintza Erreibindikati-  
bora-ko aparatuekin eta Idazkaritza Teknikoa-  
rekin zerikusirik duela:

— Organo hauetan parte hartzea zuzentzen duena E.E.a ez bada, aitzitik ordezkari ditugun pertsona zehatzak baldin badira, loturarik gabeko dinamikaz, dinamika boluntarista eta pertsonalaz, «korrenteak eraman gaitzan»eko arriskuan izanen gara.

— Han planteatuko diren lan eta aferei, beharreak eta ezinbestekoa den ikuspegi sindikalaz gainera koalifikazio askirekin ez badiegu ekiten, «korrenteak eraman gaitzan»eko arriskuan izanen gara. Eta kualifikazio hau militantzia berezituak (juridikoa, ekonomikoa,...), Idazkaritza Teknikoak eman beharko du.

Jakina, «korrenteak beti eramanen gaitu» organo hauetatik at interbentzio sindikal

egokia mantentzeko gauza ez baldin bago: partizipazioak lagun dezake baina ez du eguneroko interbentzio sindikala ordezkatu. Hau da, gure interbentzioa organo hauetan ezin dugula egin eguneroko interbentzioaren bizkar, eta honendako ere beharrezkoak dira Idazkaritza Teknikoa eta Ekintza Erreibindikati-  
bora-ko aparatoa.

Sindikatu garen aldetik gure «nortasuna»ren erdigunea ez da eta ez daiteke izan organo hauetan parte hartzea.

## 7.- ONDORIOAK

Ondoan, ordezkari-  
tza sindikaleko organo publikoetan guk maila sindikalean parte hartzearen alde jotzera eramaten gaituzten arrazoi eta zioen zerrenda eta laburpena eginen dugu. Galdera hauxe da: zergatik?

- Organo hauetara marko juridiko-politikoaren kontrako borroka eta erasotze estrategia eramaten ahal dugulako.

- Haietatik ere langileen eskubideen kontrako erasoei eta patronala eta sindikalismo erreformista euskal langileriaren bizkar sendotzera heldu diren neurriei aurre eginen diegulako.

- Erreformismo sindikala baldintzatu eta mugatuko dugulako, ELA bereziki, marko hauek bere eragin bakarraren mende utziko ez ditugarrik.

- Euskal langileria eta nazio askapenerako prozesuaren aldeko proposamenak bul-tzatuko ditugulako.

- Interbentzio eraginkor eta koerentea egiteko potentzialtasun aski dugulako (landu behar bada ere).

## EBASPEN PROPOSAMENA

**LEHENBIZIKOIA.**- Batasun Nazional honek onetsi du LABek, sartzetik duen ordezkari-

tza sindikaleko organo publikoetan parte hartzea, ondoan aipatzen diren orientabide eta planteamenduei jarraiki.

**BIGARRENA.**- Idazkaritza Nazionalak erabaki hau eraginkor izan dadin beharrezkoak diren erritmo eta neurriak ezarriko ditu, gure gainerako interbentzio sindikala hondatu gabe, praktikan gauzatzea dosifikatuz, ahaleginak mailakatuz eta interbentzioa be-reiztuz.

**HIRUGARRENA.**- Negoziazio Kolektiboarendako ondorioak sortu edo harekin erla-

ziationaturik dauden ordezkariak sindikaleko organo publikoek lehentasuna izanen dute gure interbentzioari dagokionez (Lan-Harremanetarako Kontseilua eta Funtzio Publikorako Kontseilua, batez ere).

**LAUGARRENA.**- Idazkaritza Nazionalak bere gain hartuko du erakunde gisa organo horietan hartuko ditugun erabakien eta hauen segizioaren erantzunkizuna eta Erakunde-Segiziorako Area izanen da interbentzio sindikala koordinatuko duena.

*Euskadin 1990.ko uztailaren 5.a.*

